

1. XEDEA

Ezohiko prestazio honen helburua bere edo bere onuradunen hezkuntza gastuak justifikatzen dituzten titular guztiei diruz laguntzea da.

2. DESKRIBAPENA

Laguntza honek, **2020-2021 hezkuntza gastuen** %10arekin laguntzen du, betiere kontzeptu horrengatik jaso daitekeen gehieneko zenbatekoa 200€ artekoa izanik titular eta urte bakoitzeko:

- **2019an, 2020an eta 2021ean** jaiotako haurren haur eskoletako gastuak, gehienez 100€ jasoko dira titular eta urte bakoitzeko.
- Jardunean dauden titularrentzako edo 24 urtera arteko onuradunentzako hizkuntza gastuak; gehienez 200€ jasoko dira titular eta urte bakoitzeko.
- Jardunean dauden titularrentzako edo 18 eta 24 urte bitarteko onuradunentzako unibertsitateko gastuak; gehienez 200€ jasoko dira titular eta urte bakoitzeko.

Prestazio horrengatik kobratuko den gehienekoa (hiru kontzeptuen batura) 200€koa da, titular eta urte bakoitzeko.

3. BALDINTZAK

Eskaera	BEHARREZKOA
Nork eska dezake laguntza	Titularrak
Nork jaso dezake laguntza	<p>Beren edo La Fundaciónen alta emanda duten onuradunen hezkuntza gastuak justifikatzen dituzten titularrak. Baldintza hauekin eskatu ahal izango da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Urtean behin eskatu ahal izango da. 2. Faktura bakarra egingo da, 700€-tik gorakoa haur-eskoletarako eta unibertsitateetarako, eta 500€-tik gorakoa hizkuntzetarako. 3. Jarduneko titularren gastuengatik eska daiteke, onuradunen adina edozein dela ere: <ul style="list-style-type: none"> - 2019, 2020 eta 2021 urteetan jaiotako haurrentzat, Haurreskola publiko edo pribaturako. - Hizkuntza ikasketetan, aktiboak diren titularrentzat edo onuradunentzat 24 urte bete arte. - Unibertsitate-ikasketetan, aktiboak diren titularrentzat edo 18-24 urteko onuradunentzat. <p>Kanpo geratzen dira graduondoko ikasketak eta unibertsitatekoak ez diren master propioak (lanbidean jarduteko gaikuntza ematen duten unibertsitate masterrak izan ezik).</p> <p>Prestazioa eskatu ahal izateko, titularrak La Fundacióneko titularra izan beharko du prestazioa eskatzeko unean.</p>
Antzinasuna	Gutxienez 9 hilabete prestazioa eskatzen den egunera arte.

Kontzeptu beragatik, familia-unitateko kideetako batek bakarrik eskatu ahal izango du, titular bat baino gehiago izanez gero.

4. EPEAK

Laguntza eskatzeko epeak	01/01etik 12/31ra. Eskabide presentzialak Fundación Laboral San Prudencioren bulegoetan aurkezteko, abenduaren 30era arte; webgunearen bidez aurkezteko, abenduaren 31ra arte (https://www.lafundacion.com/eu/). Prestazio hori kobratzeko eskubidea izateko, prestazioa indarrean dagoen urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gertatu behar du kausazko egitateak, eta ikasturtea hartuko da kontuan.
Laguntza onesteko datak	Hilero onesten dira hilabete horretan eskatutako hezkuntzarako laguntzak.
Laguntza ordaintzeko datak	Prestazioa hurrengo hilaren 10ean ordainduko da, abenduan eskatutako prestazioen kasuan izan ezik, horiek urtarrilaren 31n ordainduko baitira Ordainketa horiek titularraren kontuan sartu beharreko bankuko transferentzien bidez egingo dira.
Erreklamazio epeak	Ordainketa egin eta hurrengo 15 egunetan.

5. INFORMAZIOA ETA ESKATZEKO MODUAK

La información se puede solicitar a través de cualquiera de estos medios:

- presentzialki, Gasteizko Dato kaleko 43.ean ditugun bulegoetan
- 945 222 900 telefono zenbakian.
- info@lafundacion.com helbide elektronikoan.
- Gainera, laguntza hau eta beste batzuk gure webgunean kontsultatu eta eska daitezke: www.lafundacion.com/eu/

6. DOKUMENTAZIOA

Prestazioen bidez garatutako jarduerak arautzen dituen prozedura orokorraren eduki osoa aplikatuko da.

1. Eskabidea osorik beteta (La Fundaciónen webgunetik deskarga daiteke, edo bulegoetan bertan eskatu, laguntza aurkeztean).
2. Gastua egiaztatzen duen jatorrizko faktura edo haren kopia, titularraren edo onuradunaren izenean:

2019. - 2020. eta 2021. urteetan jaiotako haur hezkuntzako gastuak:

- ✓ **2020-2021** ikasturterako hezkuntza-gastuetarako laguntza eskatzen bada haur-eskola publiko edo pribatuetako matrikulengatik, 700 eurotik gorako faktura edo ordainketa-ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, ikastetxe publiko edo pribatuak emana.

Unibertsitate ikasketen gastuak:

- ✓ **2020-2021** ikasturteko matrikularen ordainagiria bidali beharko da; bertan, 700€-tik gorako zenbatekoa, matrikulatutako irakasgaiak eta horiei dagozkien kreditu kopurua adierazita egon behar dira.
- ✓ Notak aurkeztu beharko dira, arte, humanitate eta zientzien adarreko ikasketen kasuan, kredituen % 80 gainditu dela justifikatuz eta, ingeniariaritzako edo arkitekturako adarren kasuan, kredituen % 65 gainditu dela justifikatuz.
- ✓ Beka eskaera ukatu bada, ukatu izana adierazten duen gutunaren kopia edo egiaztagiria bidali behar da.
- ✓ La Fundaciónen unibertsitate ikasketetarako laguntza graduaren iraupen gisa ezarritako urte kopuruan baino ezin da eskatu.

Hizkuntzak ikasteko gastuak:

- ✓ 500€-tik gorako gastua duen faktura erantsi edo aurkeztu behar da, titulu ofiziala lortu aurreko 12 hilabeteetako hizkuntza akademiaren gastuak barne.
- ✓ **2020-2021** ikasturteko hizkuntza titulu ofiziala bidali beharko da, lortutako tituluaren fotokopia edo egiaztagiria aurkeztuta.

Oharra: titular bakoitzak urtean gehienez 300 euro jaso ahal izango ditu guztira, mendekotasun, hezkuntzarako eta laneko osasunerako laguntzengatik jasotako zenbatekoak batuta.

La Fundaciónek beretzat gordetzen du egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatzeko eskubidea.